



USO POSTUEN AZKEN ENKANTEA, ETZI

19:00etan Aresoko udaletxean izango da; sestatzeko epea zabalik dago oraindik, bihar 20:00ak arte egin daiteke 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-09-23

VIII. URTEA 2.081. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Entseguak Leidorren bertan egiten ari dira egun hauetan. NEKA

'Vaya semanita' antzezlanaren estreinaldia Leidor aretoan

TOLOSA Bihar izango da emanaldia 20:00etan; telebista saiko sketch onenak eskainiko dituzte 2

PILAR M. BURGOA OSAGILE ENERGETIKOA

«Gure esentzia energia da eta bertatik sortzen da gure gorputz fisikoa»

TOLOSA Sendatze energetikoari buruz hitzaldia eskainiko du gaur 19:00etan Kultur Etxean 5



Udal langileak, Nagore Salaberria kartelaren egilea eta Marimi Ugalde alkatea jaien aurkezpena egiten. E. MAIZ

BIHAR IRITSIKO DA JAIETAKO HERENSUGEA

IRURA Aurtengoan festa batzordeko kideek izango due txupinazoa botatzeko ardura; urriaren 10ean amaituko dituzte festak 4



sarrerak

HITZAK, bihar ostirala, irailak 24, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Tolosako Leidorren eskainiko den **"Vaya Semanita"** antzezlanerako **sarrera pare bat** zozkatuko du

Sarrerak lortzeko deitu **gaur** eguerdiko **13:00ak** baino lehen

harpidedunak
TXOKOA hitza

Laburrak

Bilerak Orixe institutuan, kurtso hasieratik

HEZKUNTZA ● Orixe Institutuan ondorengo egunetan egingo dituzte bilerak gurasoentzat eta ikasleentzat, kurtso hasiera dela-eta: DBH1 eta DBH2koek datorren astelehenean, hilaren 27an; DBH3 eta DBH4koek asteartean, hilaren 28an; eta Batxilergoko lehendabiziko eta bigarren mailakoek ostegunean, hilaren 30ean.

Katekesian izena emateko aukera zabalik

ERLUIA ● Katekesian izena emateko aukera dago, Santa Maria parrokian bigarren urtekoentzat hilaren 29an, eta gainontzeako urriaren 5ean 18:00etan. Korpus Kristi parrokian, berriz, izen-emateak 17:30ean izango dira, hilaren 30ean bigarren urtekoentzat; hilaren 28an hirugarren urtekoentzat; hilaren 29an laugarren urtekoentzat; eta lehenengo urtekoentzat hil osoan zehar, 17:00etatik 19:00etara. San Frantzisko parrokian, bestalde, hilaren 27tik urriaren 2ra bitarte egin ahalko dela adierazi dute.

Gizonek osaturiko abesbatza osatu nahi dute

KULTURA ● Gizonen abesbatza osatzeko deialdia zabaldu dute. Bertan parte hartzeko interesa dutenek Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara eman dezakete izena.

Miren Gonzalezen lanak K-2 tabernan ikusgai

KULTURA ● Miren Gonzalez margolari tolosarrak pintura erakusketa jarri du ikusgai Plaza Berrian kokaturiko K-2 tabernan. Bertan izango da ikusgai azaroaren 30era bitarte. Hain zuen ere, oliozko 10 margoz osatu du erakusketa. Erakusketa honen ostean, abendua eta urtarrila bitarte Bartzelonako galeria batean jarriko du erakusketa.

Astelehenean hasiko da ikasturtea Hizkuntz Eskolan

HEZKUNTZA ● Hizkuntz Eskola Ofizialean datorren astelehenean, hilaren 27an, hasiko da ikasturte berria. Egun horretan hasiko da astelehen eta asteazkenetako ikasleentzat eta hurrengo egunean, berriz, astearte eta ostegunetako ikasleentzat.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Ingeles irakaslea behar da arratsaldeetan lan egiteko. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 67 24 48.
■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurrak

'Vaya Semanita' antzezlanaren estreinatuko dute bihar, Leidorren

Antzerkia ● Telebistako saio arrakastatsuko sketch onenen bilduma taularatuko dute, bertako ohiko aktoreek.

INIGO TERRADILLOS

Vaya Semanita ETB2ko saio arrakastatsua telebistan ez ezik antzerkian ere ikusi ahalko da aurrerantzean. Eta gainera, Tolosa eta inguruko herritarrek izango dira antzezlan eran ikusten lehenak, bihar estreinatuko baita, Leidor aretoan, 20:00etan.

Aktoreak telebista saio berberak dira, baina kasu honetan plotoak eszenatokiengatik aldatuko dituzte. Bertan, urteetan zehar pantailaratu dituzten sketch onenen aukeraketa egingo dute. Eguneroko bizitzan gertatu daitezkeen askotariko egoeren inguruan egingo dute umorea; egoera horiek gure aitek sortuak izan daitezke, gure semeek, bizilagunek, nagusiek, lankideek, emaztearen edota senarraren maitaleek, lagunek... «Azken batean, gure bizitzako pasarte txikiak izan daitezke, geure burua ere bertan irudikatu dezakegularik», azaltzen dute lanaren egileek.



'Vaya Semanita' antzezlaneko aktoreak, entseguetako batean, Leidorren. NEKA

2003. urtean hasi ziren Vaya Semanita saioarekin, eta ordutik «harrera oso ona» izan du beti. Astearen behin ematen duten saio honetan aktualitatearen kronika egiten dute, umorearekin uztartuz. Denetarik gaiak lantzen dituzte, eskualdiko politikatik hasi eta bikoteen arteko erlazioetara

» DATUAK

- **Antzezlanaren Vaya Semanita.**
- **Zuzendaria.** Idoia Uranga.
- **Aktoreak.** Andoni Agirregomezkorta, Javier Anton, Itziar Atienza, Iker Galartza, Mañu Elizondo eta Leire Ruiz.
- **Kolaborazio bereziak.** Diego Pe-

rez (*Txori*), Gorka Ronquete (*Jota*) eta Axel Casas (*Ke*).
■ **Ekoiak.** Pausoka eta Glu Glu.
■ **Txartelak.** Leidorreko leihatilan (zine ordutegia) eta Kutxako karnaletan (Servikutxa, Telekutxa, eta www.kutxa.net), 20 eurotan.

«Aspalditik antzerkiratu nahi genuen»

IKER GALARTZA › 'Vaya Semanita' antzezlaneko aktorea

I. TERRADILLOS

Uda osoan zehar entseguetan aritu eta gero lana estreinakoz taulartzeko unea iritsi zaiou *Vaya Semanita*-ko lantaldeari. Iker Galartza aktorearentzat are bereziagoa izango da estreinaldia, bere herrian, Tolosan, izango baita. Berak, ordea, nahiago luke beste herri batean estreinatuko ostean ekarriko balute, «horrela hasierako akatsak-eta zuzendu eta ziurtasun handiagoz egiteko aukera izaten delako».

Erraza izan al da telebistatik antzerkiratu pasatzea lana?

Telebistan edo antzerkian lan egitea ez da berdina, eta horregatik moldaketa ugari egin beharra izan ditugu, gidoietan, esaterako.



ETB

Nolatan erabaki zenuten saioa antzerkietara eramatea?

Aspalditik egin nahi genuen zer bait zen, eta antzerkian ere funtziona zezakeela pentsatzen genuen. Azkenean, ekiztetxeak pauso hori eman du, eta gu ere animatu egin gara.

Zergatik du arrakasta saioak?

Adin guztiei eskainitako delako. Egin ditzakegu sketchak politikariari egurra emanez eta horiekjende helduagoari gustatzen zaizkie gehiago, eta alderantziz baditugu beste pertsonaia batzuk jende gazteari asko gustatzen zaizkienak.

Zergatik aukeratu duzue Tolosa estreinatzeko?

Elgoibarren eta Tolosan aritu gara udan entseiatzen, eta azkenean ikusi dugu Tolosako aretoan dauden baliabideak egokiagoak direla, horregatik estreinatuko dugu bertan. Udalak emandako babesa ere garrantzitsua izan da.

Ikusmin handia sortu du emanaldia.

Bai. Kaleko karteak jendearen kuriositatea piztu dute. Jendeak galdu ere egiten du ea nolako izango den eta telebista saioaren berdina izango ote den.

Nolako izango da biharko emanaldia?

Egin ditugun sketch guztietatik onenak edo arrakasta gehien izan dutenak aukeratu ditugu. Horiak taularatuko ditugu, baina ez era soltean, bata bestearekin lotuz era absurdoan bada ere.

2010ko USATEGIEN ENKANTEA
BIRICARRO ETA USOA
ARESO(NAFARROA)
TEL 948510327-608928626

Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sordibide kotzez
Enkantea Udaltzeko Batzar Aretoan burutuko da.
1go enkantea: irailaren 18an, larunbata, 19:00 ordutan
2.enkantea: irailaren 25ean, larunbata, 19:00 ordutan

zaintzeko. Autoarekin. 943 65 12 64/600 33 62 14.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. 634 45 9110.

Ibarra eta Lizarraren arteko senidetzea ospatu dute Nafarroan

ERREDAKZIOA

Ibartarren eta lizartarren arteko harremana sendotuz doa. Iaz senidetu ziren Ibarra, lehen Euskal Herria Egunean. Asteburuan bigarrena ospatu dute Lizarran, bertako herritarren aurrean bi herrien arteko senidetzea aurkeztuz.

Ibarratik ehun lagun inguru joan ziren Nafarroara larunbatean, «haurtxoak, gazteak, gurasoak, aitona-amonak...». Erantzun honekin, bai ekimenaren sustatzaileak eta baita partaideak ere, «oso gustura agertu ziren». «Izugarrizko eguna izan da Lizarrakoa. Antolakuntza ere txapela kentzeko mo-

dukoa izan da» azaldu zuten ibartarrek.

Ekitaldi «hunkigarriak»

10:00etan Ibarratik joandakoei harrera egin zieten lizartarrek, agurra eta guzti. Ondoren gazte txean jai giroa hasi zen, *kaldikoarekin*. Zanpantzar ikastaro azkar baten ondoren, bi herrietako kideak kalejiran irten ziren. «Egunean zehar dantzariak, herri kirolak, bazkaria, poteoa, erromeria... polita eta hunkigarria izan zen».

Senidetze ekitaldian berriz, bi herrietako elkarte eta taldeen arteko lana azpimarratu zituzten.



Elkarte desberdinek oroigarri bana jaso zuten. Herri bazkarian berriz 300 lagun inguru elkartu ziren. Zanpantzarren kalejiran ibartar «ausartenak» ere irten ziren. HITZA

Autorik gabe egunean CO2ari Stop esan diote

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astearen baitan egitasmo desberdinak antolatuta dira azken egun hauetan. Askok autoarekin izan dute lotura, honen erabilera murrizte aldera, informazio ugari plazaratu delarik. Atzo berriz, Autorik Gabeko Na-

zioarteko Eguna izan zen. Ikastetxeetan oihartzun handia izan baldin bazuen ere atzoko egunak, gure errepideetan egunerokotasuna nagusitu zen. Hau da, auto kopuruak ez zuen behera egin.

Samaniego ikastetxean saiatu, saiatu ziren atzoko egunean. Ikas-

tetxe kanpoan hainbat mezu jarri zituzten haurrek: *Eskolara oinez; Parkeak bai, CO2 ez; Hau ere nire kalea da; Jolasteko parkeak, armasteko guneak eta Bai, bai, bai, bizikletaz alai bezalakoak.*

Patioan ere zirkuitu eta lanketa desberdinak burutu zituzten,


atzokoa *Nire Autorik Gabeko Eguna* zela gogorarazteko.

Tolosako Zumardi Txikian aldez, ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartu ziren eguerdian. Alde batetik, garraio publikoaren inguruan informazioa banatu zuten. Bestetik, inkestabat egin zuten herritarren artean, eta CO2ari Stop

esan zioten. Arratsaldean helduagoen txanda izan zen, StopCO2 mahaiaren lehendabiziko bilera egin baitzuten. Udalak 2009. urtean osoko bilkuran adostu zuen ordenantzari erreparatu eta, ildo honi jarraipena emanez egin zen batzarra, Tokiko Agenda 21 ekin-tza plana garatzeko asmoz.



Samaniego ikastetxearen kanpoan hainbat mezu zintzilikatu zituzten ikasleek. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Marimi Ugalde alkatea herri festak iragartzen, udal langileak eta Nagore Salaberria kartel egilea alboan dituela. E.MAIZ

San Migel jaietako suziriak bihar egingo du eztanda

Irura » 19:00etan botako dute txupinazoa festa batzordeko kideek. Adin guztietako herritarrek izango dute festan murgiltzeko aukera.

ENERITZ MAIZ

Urte osoan zain egon ondoren, irurarrak herriko jaiak ate joka dituzte. Bihar 19:00etan jaurtiko duten suziriak emango die hasiera jaiak eta festa giroan ibiltzeko egun ugari izango dituzte. Udal ordezkari eta langileek, atzo aurkeztu zituzten herriko jaiak.

Aurtengo jaiak iragartzeko kartela, lehiaketa bidez aukeratu dute. Irabazlea, Nagore Salaberria herritarra izan da. Hain irurarra den dantza soka irudikatzen du. Marimi Ugalde alkatearen ustez, «betebetean irudikatzen ditu Irurako jaiak. Soka dantza herriko jaien nolabaiteko ardatza da».



Nagore Salaberria, kartel lehiaketako saria jasotzen. E.MAIZ

IRURAKO UDALAREN ARAUAK ETA AHOLKUAK

Lurra alferrik ez zikindu. Zakarrontziak erabili. Berriz erabiltzeko edalontziak erabiliz, zaborra gutxitu eta txosnetan erositako edalontzietan eskutu edaria, tabernetan ere. Herria txukun mantendu, herri altzariak errespetatu, berdintasunean bizi, eraso sexistarik ez, arduraz jokatu eta neurrian edan. Ondo pasa, pasatu gabe!

Festetako zapia, lepoan

Udal ordezkariak, herritarrei, jaietako zapiarekin ateratzeko dei luzatu nahi izan diete. Denek zapia lepoan izanda beste giro bat sortzen dela adierazi zuten.

Aurtengo txupinazoa, festa batzordeko kideek botako dute. Eta herensugea urriaren 2an erretzeko jaitziko da. Bitartean, barrikotea, dantzaldiak, haur eta gazteen festak, dantza-soka, sagardo dastatzea, kalejira, play back-a, haur parkea, kale antzerkia...

Kontzertuak eta bertso saioa

Larunbatean, 23:00etan, Bartzelonako Canovelles herriko Colla de Gitanes taldearen dantza ikuskizuna egongo da. Ondoren, Redveil, Governors eta Kerobia taldeen kontzertua. Igandean, bertso saioa izango da. Gaiak jartzen, Aitor Mendiluze arituko da eta bertsoetan, Lujanbio, Soto, Alberdi eta Sarriegi.

Marka saiakera berria

Igandean, herri-kirol saioa izango da 17:30ean plazan. Idoia Etxeberria harri-jasotzaile oriotarra marka saiakera berria egiten saiatuko da. 17 urteko neska gaztea, 137 kiloko errektangeluarra, bost minutuko txanda bakarrean jaso beharko du. Ondoren, aizkolariak izango dira: Arrospe eta Mugerza II.a, Mujika eta Otaegiren aurka.

» IRURAKO SAN MIGEL JAIK 2010

Hilak 24, ostirala

- **19:00.** Agurra eta txupinazoa botako dute Herensugearen jaitziera eginez.
- **Ondoren.** Kalejira buruhandekin, erraldoiekin, Ehunzango perkusio taldearekin eta Bonberenea txarangarekin.
- **21:00.** Barrikotea egingo dute Bonberenea txarangarekin girotua.
- **24:00.** Dantzaldia Egan taldearekin.

Hilak 25, larunbata Haur eta Gazteen Eguna

- **09:00.** Gazte Festaren hasiera plazatik.
- **12:00.** Haurrentzako eskual festa eta jokoak (Irurako neska-mutiko guztiak artzain-andrez eta baserritarrez etortzera animatzen dituzte).
- **13:30.** Mutilen dantza-soka.
- **14:00.** Haurren bazkaria egingo dute.
- **14:30.** Gazte festako bazkaria.

- **15:00.** Haurrentzako txu-txu tren eta puzgarriak Garbileku plazan.
- **17:30.** Poxpolo eta konpainia pailazo taldearen *Segi jotzen* ikuskizuna Loatzo Plazan.
- **18:30.** Nesken dantza-soka dantzatuko dute.
- **19:00.** Sagardo dastaketa.
- **21:00.** Gazte festako afaria Aizpurua Jatetxean.
- **23:00.** Bartzelonako Canovelles herriko Colla de Gitanes taldearen dantza ikuskizuna.
- **24:00.** Kontzertua Redveil, Governors eta Kerobia taldeen eskutik.

Hilak 26, igandea

- **12:00.** Gorririten aberekin gozatzeko aukera izango da.
- **17:30.** Herri-kirolak plazan: Idoia Etxeberria harri-jasotzaile gaztearen marka saiakera berria izango da. 137 kiloko errektangeluarrekin saiatuko da, bost minutuko txanda bakarrean.

- **Ondoren.** Aizkolariak: Arrospe eta Mugerza II.a, Mujika eta Otaegiren aurka.
- **19:00.** Bertso saioa. Bertsotan: Maialen Lujanbio, Julio Soto, Uxue Alberdi eta Aitor Sarriegi bertsolariak eta gaiak jartzen: Aitor Mendiluze arituko da.
- **20:00.** Erromeria Dantzadi trikitilari taldearekin.

Hilak 28, asteartea

- **18:00.** Kalejira buruhandekin izango da.
- **19:00.** Loatzo Musika Eskolako bandaren emanaldia plazan.

Hilak 29, asteazkena

- **09:00.** Diana txistulariekin
- **11:00.** Herriko zaindariaren omenezko Meza nagusia Ondoren, dantzariak eta herri-hamaiketako.
- **18:00.** Irurako dantza taldearen saioa: aurtengo udan Canovellesen aurkeztutako emanaldi berria eskainiko dute.

- **19:00.** Miren Fernandez abeslariaren *Laztantzzen nauen eskua* diskoaren aurkezpen kontzertua izango da.
- **20:15.** Kupela trikitixa taldearen emanaldia.

Urriak 1, ostirala

- **19:00.** Kalejira buruhandi eta erraldoiekin.
- **Ondoren.** Txistor-jatea Share Elkartearen.
- **22:30.** Play Back jaialdia plazan
- **24:00.** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

Urriak 2, larunbata

- **Bikoteen Eguna**
- **11:00.** Haur parkea Loatzo kalean.
- **13:30.** Bikoteen dantza-soka dantzatuko dute.
- **14:30.** Bikoteen bazkaria Aizpurua jatetxean.
- **Ondoren.** Musika dantzagarria izango da zuzenean. Oharra: Ludoeteka zerbitzua egongo da baz-

karira joaten diren gurasoen haurrentzat.

- **16:00.** Haur parkea eta puzgarriak Loatzo kalean
- **18:00.** Luma Gorri haurrentzako dantzaldia San Migel Plazan Txorromorro taldearen eskutik
- **19:30.** Kale antzerkia: *Camping Renove* antzezlanaren Trapu Zahar taldearen eskutik.
- **23:00.** Kontzertua Lain taldearekin
- **24:00.** Herensugea erretzea egingo dute
- **Ondoren.** Dantzaldia Haitzama taldearekin.

Urriak 10, igandea Jubilatu eta Pentsiodunen Eguna

- **12:30.** Meza nagusi bestua izango da.
- **14:30.** Jubilatuta eta pentsiodunen bazkaria Zaharren Biltokian.
- **Ondoren.** Jokoetako sarien banaketa eta musika dantzagarria zuzenean.

E Elkarrizketa

PILAR M. BURGOA Osagile energetikoa

«Adimena duen energi-az osatuta gaude»

Osasuna » Hitzaldia emango du gaur sendatze energetikoari buruz Pilar M. Burgoak; energiaren kalitatea bakoitzaren araberakoa dela dio.

IMANOL GARCIA

Pilar M. Burgoak (Bartzelona, 1958) hitzaldia emango du gaur, 19:00etan, Tolosako Kultur Etxean sendatze energetikoari buruz. Donostian du bai kontsulta eta baita eskola ere. Hain zuzen, ikasle tolosar batek animatu zuen herrian hitzaldia ematera.

Pertsonari lotutako energia beste kulturetan, demagun Txinan edo Indian, ezagunagoa da. Baina gurean ez da hain ezaguna kontzeptu hori.

Garai honetan, XXI. mendean, kontzientzia gehiagoko garaia da eta ezagutza hau guregana iritsi daiteke, gure bizitzetan asko lagunduz.

Nola deskribatuko zenuke energia hori?

Energia horrek adimena du. Gu energi-az osatuta gaude. Gaur egun jendeak fisikako zenbait ezagutza baditu: atomoak, molekulak... Bada, gure esentzia energia da eta energia horretatik sortzen da gure gorputz fisikoa. Kirlian kamerarekin energia horren argazkiak egin dira. Milioika atomoz osatuta gaude eta molekulen abiadura motel-terakoan dentsuagoa egiten joaten da eta forma bat hartzen doa, hainbat gorputz osatu arte. Ez dugu gorputz bakarra, bat baino gehiago dugu eta bakoitza gero eta dentsitate gutxiago du. Hitzaldietan ez hainbeste, baina ikastaroetan esaten dut arreta bakoitzaren eremu energetikoan jartzeko.

Nola egiten da hori?

Milioika atomo garena irudi bat osatuz eta atentzioa horra eramateko. Milioika atomo horiek adimena dute eta horri hainbatizenez deitzen zaio: jaungoikoa, jainkotasun, kosmos, hutsunea... Kulturaren etagarapen denboraren arabera da hori.

Sendatze energetikoaz hitz egiterakoan, energia horren mailan egiten den osatzeaz ari zarela esan daiteke.

Hori da, sendatze energetikoa energiaren mailan egiten den osatzea da. Hitzaldietan esan ohi dudanez, kirurgialariak gorputz fisikoan lan egiten dute zuzenean, gorputz fisiko sendatzen dute. Osagile batek berdina egiten du, baina gorputz energetikoan. Ez

dugu guk geuk egiten hori, guk gorputz fisikoaz zuzenean energia hori bideratzen dugu. Eta beste energia batzuek osatu egiten dute. Gure ahalmena, pertsonak bezala, gorputz fisikoaz zuzenean da eta horren bitartez energiak aditzera eman daitezke. Sendatze energetikoa energia zuzenean lantzea da, molekulen mailan. Zelulak ez dira bakarrik gorputz bat, energia dute eta zelula guztiak memoria zelularra dute. Memoria horretan dago bakoitzaren historia pertsonala. Eta sendatze energetikoak osatzen duena memoria hori da.

Gorputz fisikoaz gain beste gorputz batzuk daudela diozu, adibidez aura deiturikoa. Deskribatuko zenuke zer den aura?

Aura eremu energetikoa da.

Arimaren baliokidetzat jo daiteke?

Gorputz fisikoa auran biltzen da eta arima gorputz fisikoari bizia ematen diona da. Gorputz fisikoak natura fisikoaren elementu berdinak ditu. Bizitza hau uzten dugunean gorputz fisikoak hemen gelditzen da eta beste dimentsiora igarotzen dena arima hori da, energia horiek dira. Energia ez da desagertzen, transformatu egiten da.

Pertsoez gain, animaliek, landareek... eremu energetiko hori dute?

Bai, horregatik hitzaldiari buruzko informazioan zehazten dut pertsonen eremu energetikoaz ariko naizela. Lurrak bere eremu energetikoa du. Bizia duen guztiak du bere eremu energetikoa, gutzia energetikatik sortzen baita eta gero hartzen du bere forma. Zuhaitz bati begiratzen badiozu, begirada modu jarraian gaizki fokatuz, zuhaitzaren eremu energetikoa ikusi ahalko duzu. Gauza guztiak dute eremu energetikoa, baita eginak daudenak ere, liburuak esaterako. Ikasleei itsasoaren eta bertan bizi diren arrainen adibidea jartzten diet. Arrainak itsasoaren baitan bizi dira. Gu ere berdin, baina eremu energetiko handi batean.

Sendatze energetikoan norberak bere burua osatu dezake?

Nik erabiltzen dudana metodoa Barbara Brennan eta Barbara Mar-tin doktoreek garatutakoa da, dagoeneko 25 urtez zientifikoki fro-



NEOFORMA ALDIZKARIA

gatu dutena. Norberak bere burua osatu dezake, energiak zure eskuen bitartez, zure gorputzen bitartez baitabil. Beraz, norberak, jakinez gero, energia eraman dezake bakoitza nahi duen gorputzeko lekuraino. Jakin behar da nola bide-

ratu hori. Gorputz fisikoa arindu behar da. Energiak mailak ditu eta bibrazioarekin zerikusia du. Eskulan eremu energetikoaren bibrazioa goratzen erakusten dut, osagile izateko. Energiaren kalitatea pertsona bakoitzaren araberakoa

da, bere gorputzaren eta batez ere bere buruaren araberakoa. Horregatik pentsamenduak eta sentimenduak lantzearen garrantzia, gure benetako izaerarekin bat egiteko, hau da, zoriontasuna, edertasuna, poztasuna...

Irudikatu mundua BERRIArekin



Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berresimulazio hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8, argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Urriaren 15ean, telebista hau zotz egingo dugu BERRIAren harpidedunen artean, Elektarren eskutik.



www.elektregailuak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info **Aukerazazu, bizieuskaraz. berria**

Mikel Goiaingeruaren jaiak hastear

Tolosa » Etzi hasiko dira Aldabako jaiak; larunbatean, igandean eta asteazkenean izango dira ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Hiru egunetako egitaraua prestatu dute Aldaban Mikel Goiaingeruaren jaiak ospatzeko. Etzi, larunbata, botako dute txupinazoa 19:30ean eta igandean zein asteazkenean ere izango dituzte ekitaldiak.

Larunbatean bertan, 21:00etan, zahagiardoa izango dute bertsolarien laguntzarekin. Afaltzen duten bitartean, hortaz, Hermaniko bertso eskolako bertsolariak alaituko dute giroa.

Antolatzaileek, dena den, zaha-



Sagardo dastatzea egin zuten iaz, jaien baitan. I. LAHIDALGA

giardoa edaria eta eserlekuak prestatuko dituztela argitu dute, gainontzeko guztia bakoitzak eraman beharko duelarik.

Txirindulari Igoera Herrikoia

Igandean, aldiz, meza nagusiaren ondotik, 12:00etan, Aldabako Txirindulari Igoera Herrikoia egingo dute eta izena 11:30etik aurrera eman ahal da 'kantilean'. Arratsalderako herri kirolen saioa ere antolatu dute; aizkoran Asier Pellejero eta Mikel Belauntzararen izango dira eta trontzalariak, aldiz, Jokin Garmendia eta Unai Iraola bikotea eta Iñaki Garmendia eta Patxi Urretabizkaia izango dira. Eguna Ostolaza eta Andonegi trikitilarien doinuekin amaituko dute. Jaiak asteazkenean amaituko dira eta ekitaldi ia guztiak mahaiaren bueltan egingo dituzte.

» EGITARAUA

Etzi, larunbata

- 19:30. Txupinazoa.
- 19:30. Sagardo dastatzea.
- 21:00. Zahagiardoa pilotalekuan bertsolariekin.
- 23:30. Erromeria Elustondo anai-arreben trikiti doinuekin.

Igandea, hilak 26

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. Hirugarren Aldabako Txirindulari Igoera Herrikoia.
- 14:30. Herri bazkaria.
- 18:00. Herri kirolak.
- Jarraian erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin.

Asteazkena, hilak 29

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. Hamaiketako herritarrentzat.
- 18:30. Karta txapelketa.
- 20:30. Afari herrikoia eta aurtego jaien amaiera.

Udal euskaltegietako irakaslegoa murrizteko nahia salatu du LABek

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuak «HABEk behin-behineko irakaslerik ez kontratazeko egin duen deia» erabat «gaitzesgarria» dela adierazi du. «Galtzaileak langileak, ikasleak eta euskara bera izango dira», argitu du. Tolosan bertan Aitzol udal euskaltegiak honen ondorioak pairatu ditzake.

Gogoratu behar da, HABEk euskaltegiari diru laguntzak banatzeko sistema aldatu zuela 2009-2010 ikasturtean eta LABen iritziz erabakia «sindikatuaren iritzia kontuan hartu barik» hartu zutela. «Eurek hartu zituzten erabaki guztiak eta lau haizetara zabaldu zuten HABEren parametroen barruan zeuden talde guztiak diruz lagunduko zituztela. EUDELekin batera fi-

nantziario sistema berriaren aurkezpena egin zuten komunikabideen aurrean, eta ordura arteko finantziario sistema bertan behera gelditzen zela esan zuten. Hau guztia, iaz gertatu zen, krisiangeundela bagenekienean», dio.

Horiek horrela LABek «'krisiaren' ondorioz» Eusko Jaurlaritzak euskaltegien laguntzak %6 jaitsi dituela nabarmendu du. Udal euskaltegiak %12,4 gutxiago jasoko dute, eta pribatuak %2,9 gutxiago. «Udal euskaltegiak 11 milioi euro inguru jasoko dituzte, iaz baino 1,6 milioi euro gutxiago», argitu dute. «Honek eragin zuzena du langileen eta batez ere irakasleen kontratazioan. HABEk irakasleen soldata eta antzinasuna ordaintzen ditu. Gauzak horrela izanik, udalek ez

dituzte beharrezkoak izan daitezkeen irakasleak kontratatuko. Lanpostuak galdu egingo dira, eta ikasle taldeak irakaslerik gabe geldituko dira -Eugenio Mujikak, HABEren zuzendari nagusiak, bidalitako mezua honen lekuko-», gaineratu du.

«Euskara ikastea ez al da eskubidea? Nork bermatu behar du eskubide hori? Irakaslerik ez kontratazkeak euskararen ikaskuntzan *numerus clausus* ezartzea dakar. HABEk dio ikasleei ematen zaizkien diru laguntzetan ez dela murrizketarik egingo, baina zer egingo dute onartuak ez diren ikasleek? Non ikasiko dute? Nola bermatuko dute HABEk eta EUDELek euskararikasteo eskubidea herritar guztientzat?», galdetu du sindikatuak.

Txintzarri Txikiren lehen entsegua, bihar

Alegia » Uztaila bitarte ostiralean 19:00etatik 20:00etara Kultur Etxeko areto nagusian ariko dira kantari gazteak.

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintzarri Txiki abesbatzak bihar hasiko du ikasturtea. Udako oporren ostean gogotsu ekingo diote kantuari Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarte txikienean. Uztaila bitarte ostiralean egingo dituzte entseguak 19:00etatik 20:00etara, Kultur Etxeko areto nagusian. Taldeko abeslari gazteenak ere buru-belarri sartuko dira urriko Txintzarri Eguneko kontzertua prestatzeko.

19 urte kantuan

Hemeretzi urte daramatza Txintzarri Txiki abesbatzak kantuan eta Txintzarri Abesbatza Kultur Elkartearen ekimenez sortu zen, geroztik, Txintzarri abesbatzaren harrobia delarik.

Hainbat zuzendari izan ditu abesbatzak urte hauetan guztietan, gehienak alegiarrak. 2001az geroztik Tolosako Idoia Iraola Azpiroz gazteak zuzentzen du 15 ahotez osatutako abesbatza. 8 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteak biltzen ditu Alegiako Txintzarri Txiki abesbatzak.

Abesbatzak dei egin die hirugarren mailatik seigarren mailara bitarteko ikasle guztiei, bihar Kultur Etxean azaldu eta abesbatza izena ematera animatzen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Uso postuen azken enkantea egingo da etzi arratsaldean, udaletxean

Areso » Sesteatzeko epea zabalik dago oraindik; interesa dutenek bihar 20:00ak baino lehen egin beharko dute eskaintza.

ERREDAKZIOA

Etzi Aresoko Uso Postuen bigarren enkantea egingo da. 19:00etan izango da hau, udaletxean.

Joan den asteburuan egin zen lehendabiziko enkantea. Bertan, 26 uso postu zeuden aukeran, eta horietatik 17kjaso zituzten eskaintzak. Hala ere, oraindik irekia dago sesteatzeko aukera. Horretarako epea bihar arratsaldeko zortzietan amaituko da.

Nafarroan, ehizako legediaren arabera, sesteatzeko aukera eman behar da. Hori dela eta, lege horretan oinarrituz, joan den larunbatean egingako eskaintzak hobetzeko aukera badago oraindik. Interesa dutenek, bihar 20:00ak baino lehen udaletxean aurkeztu beharko dute beraien proposamena. Baina, hori bai, gutxienez, seiren batean hobetu beharko dute aurrekoa. Norbaitek hori egiten badu, larun-



Aresoko uso postuek ehiztari ugari erakartzen dituzte, eta jendetsua izaten da urtero hauen enkantea. A. IMAZ

batean berriro enkantera aterako da aipatutako postua.

Honenbestez, larunbateko enkantea irabazten dutenek, ordutik aurrera, denboraldi guztia irauten duen bitarteko izango dute postua. Hau azaroaren amaierara arte luzatuko da.

Mikel Baraibar Aresoko alkate-

aren esanetan, «oso garrantzitsua da sesteoak irauten duen bitartean udaletxean eskaintza egitea, bestela berriro ezingo baita berriz enkanter jarri». Bestalde, horretarako udaletxera joan behar da, eta ezin da telefonoz edo egin, %10eko fidantza bat ordaindu beharra baitago. Gaineratu zuen, aurreko la-

runbatean jende gutxi izan zela, egun berean, Gorriti eta Baraibarraren hango uso postuetako bigarren enkanteak egin baitziren. Hori dela eta, azkena dela garrantzitsua agertu zuen, eta oraindik, batzuk hutsik baldin badaude ere, larunbatekoan, denak hartuko direla argi dauka.

» USO POSTUEN ENKANTEA

Orain arteko eskaintzak

- 1. postua. 310 euro.
- 2. postua. 750 euro.
- 3. postua. 890 euro.
- 4. postua. 1.070 euro.
- 5. postua. 380 euro.
- 6. postua. Hartu gabe dago.
- 7. postua. 90 euro.
- 8. postua. Hartu gabe dago.
- 9. postua. 90 euro.
- 10. postua. 90 euro.
- 11. postua. 90 euro.
- 12. postua. 90 euro.
- 13. postua. Hartu gabe dago.
- 14. postua. Hartu gabe dago.
- 15. postua. Hartu gabe dago.
- 16. postua. Hartu gabe dago.
- 17. postua. 90 euro.
- 18. postua. 90 euro.
- 19. postua. Hartu gabe dago.
- 20. postua. Hartu gabe dago.
- 21. postua. 90 euro.
- 22. postua. 740 euro.
- 23. postua. 440 euro.
- 24. postua. Hartu gabe dago.
- 26. postua. 90 euro.
- 27. postua. 90 euro.

Eskualdean ehizatoki ezagunetako bat da Areso eta bere inguruko mendiak, ehiztariz betetzen dira irailko eta urriko aste eta asteburuetan. Halaber uso asko edo gutxi pasako diren iragartzerik ez badago ere, badaezpada tokia ziur-tatzea onena.

Euren eguna ospatuko dute igande honetan jubilatuek

Leaburu-Txarama » Meza, toka, bazkaria, trikiti doinuak eta opariak ez dira faltako adinekoen zuzendutako festan.

ERREDAKZIOA

Irailko azken igandea iristear da, eta honekin batera, Leaburu-Txarama Jubilatuek Eguna. Urtero ospatzen dute jai hau, bertako adinekoek, eta oraingoan, hilaren 26an dute hitzordua. Elkarren artean kontu zahar eta berriak eguneratze nahiz egun alai bat pasatzeko aukera izaten dute Udalak antolatutako jai honetan.

Eguerdiko 12:00etan Meza Nagusia ospatuko dute Leaburuko elizan. Hara joan ahal izateko, autobus bat antolatu dute. Hau Txaramatik abiatuko da 11:20ean. Honek geldialdiak egingo ditu ibilbidean zehar. Lehendabizikoa kartero ondoko autobus geltokian (11:20), bigarrena, Baratzondon (11:25) eta azkena paper-fabrikako pisuondoan (11:30).

Meza ostean, herriko dantzariak emanaldia eskainiko dute adineko guztientzat, herriko plazan.



50 lagun inguru biltzen dira urtero festan. HITZA

Jarraian toka txapelketa egongo da, irabazleentzat sari politik egongo direlarik. Egunari jarraipena bazkari batekin emango diote. Urteetako ohiturari jarraituz, hau Zazpi Bide elkartearen izango da 14:00etan. Bazkalostean opariak banatuko dituzte bertaraten direnen artean. Egunari amaiera musikarekin emango diote. Adinekoak dantzari jartzeko, trikiti doinuak entzun ahal izango dira.

» JUBILATUEN EGUNA

Irailak 26, igandea

- 11:20. Txaramatik abiatuko da autobusa.
- 12:00. Meza Nagusia.
- Ondoren. Udalerriko dantzarien emanaldia.
- Gero. Toka txapelketa.
- 14:00. Bazkaria eta oparien banaketa.
- Bazkalostean. Trikitilariak.

V. Literatur lehiaketa jokoan da jada

Leitza » Urriaren 30a bitartean aurkeztu ditzakete parte-hartzaileek lanak; narrazioak eta bertsoak aurkeztu daitezke.

ERREDAKZIOA

Kultur taldeak V. Literatur lehiaketa antolatu du. Hau bi sailetan banatu dute, batetik, narrazio laburra eta bestetik, ipuina eta bertso-papera. Lanak aurkezteko epea urriaren 30ean amaituko da.

Aurten ere, iazkoa lanari segida

emanez, narrazio idazle zaleez gain, bertso eskolako ikasleek nahiz bertsozaleek ere badute zer egin eta non saiatu. Hori dela eta, sormena lantzearekin batera, sari polit bat lortzeko aukera dute beste behin ere parte-hartzaileek. Narrazioek bi orritik hamarrera bitarteko luzera izan behar dute, eta bertso-papera lau bertsoetik 16rako.

Bestalde, aurreko lau urteetan aurkeztutako lan guztiak biltzen ari dira eta hauek ikusgai jarri dituzte beraien webgunean, hau da, www.leitzakultura.net-en.

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

400 Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULAGINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherrikoPLaza.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Mamen Pildain: «Sagardogile on bat bezela». MAMEN PILDAIN



LAOS

«Aurtengo udan, Laosen izan gara. Argazki hau, soilik barkuz iristen zen herrixka batetik gora, oinez joandako auzune batetan aterata dago. Oso leku politta, Gokuren arkaitez artean, arrozalez inguratuta. Leku zoragarria, lasaia eta jende jatorrez bete». IBAI IRIARTE

A Agenda

Deialdiak

- **Bidegoian.** 21:00etan Josune Lazkanoren eskutik *Munduan zehar* bideo emanaldia Txinkorta Ikastetxean, Kultur Astearen egitarauan.
- **Ikaztegieta.** Pilates eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Udalak. Izen-ematea, 943 65 33 29 telefono zenbakian. 8-10 laguneko taldea osatu beharko litzateke, urriari hasi eta ekaina amaiera bitarte, astean bi orduz, adin guztiatarako.
- **Irura.** Loatzo Musika Eskolak matrikulazio epea irekita du oraindik. Izena eman edota informazio gehiago jasotzeko 943 692619 telefonora deitu beharko da.
- **Tolosa.** Gizonen abesbatza osatu nahi da. Interesatuak Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara eman izena edo 685 71403 telefonora deituta.
- **Tolosa.** Hizkuntz Eskola Ofizialean 27an hasiko da ikasturtea, as-

telehen eta asteazkenetako ikasleentzat eta 28an astearte eta ostegunetako ikasleentzat.

■ **Villabona.** Hirugarren Adinaren XXV. Astea: Marmitako lehiaketa Txermin biltokian. Epaia-mahaia- ren erabakiaren ondoren bazkide- en artean banatuko dira kazuelak.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan zine- forum saioa: 19:15 eta 21:45ean *Tuy yo*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernika-ko Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112..

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Aitziber Aiestaran Elordi (Ibarra). Gaur 9 urte. Zorionak eta muxuak familia osoa eta bereziki lehengusu Aneren eta Aratzen partetik. Datorren urtean berriro bainatuko gara Camino, Aqua eta Julitorenkin.

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

EAKO Argazki Lehiaketa

2. Saria

Getariako Argazki Lehiaketa

3. Saria

Gorrotzeko Argazki Lehiaketa

Parte-hartzaile guztiak HITZako materialerik gabe.